

1 ZENBAKIA

2025EKO ABENDUA

ZUBIXA

OÑATIKO ALDIZKARIA

**ERAIKIN HISTORIKOEN
OSASUNA**

LA SALUD DE LOS EDIFICIOS HISTÓRICOS

Gabriel Ruiz Cabrero

EUSKAL LITERATURA

Maite López Las Heras

LIBURUAK

Pello Salaburu

MUSIKA

Esteban Irusta

**EUSKAL
POTTOKA**

Nerea Agirresarobe





Gure ondarearen defentsan

Ondare monumentala ez da iraganeko egitekoa, baizik eta gure arbasoekiko eta gure etorkizunarekiko konpromiso saihestezina.

Eraikin historiko bakoitzak, harri bakoitzak, herri baten oroimen kolektiboa eta mundua ulertzeko modu berezia gordetzen ditu. Haiek zaintzea ez da izoztuta uztea, bizirik irautea baizik: arnasa hartzen jarrai dezaten, gure orainarekin solasean aritu daitezen eta etorkizuneko belaunaldiak lagun egin diezaieten.

Oñatik erreferente izan beharko luke historia eta bizitzaren arteko elkarbizitza horretan. Unibertsitatea, San Migel, Bidaurretako Santa Klara, jauregiak, dorretxeak eta baserriak ez dira monumentu hutsak: nortasun partekatu baten lekuko dira, artez, fedeez eta jakintzaz ehundutako sare bizia, oraindik ere beren hormetan taupaka dirauena.

Hala ere, gaur miresten dugun edertasuna, pixkanaka desagertzen ari dena, jaso dugun ondarea arduraz zaintzeko dugun etengabeko konpromisoaren arabera da. Kontserbazioa, arkitekto Gabriel Ruizek zenbaki honetan gogorarazten duen bezala, ez da inprobisatzen: zaintza iraunkorra, ekintza erabakigarria eta erakundeek zein herritarren arteko lankidetzaren sendoa eskatzen ditu.

Oñati zaintzea, gure izaeraren funtsezko zati bat zaintzea da. Ez dago etorkizunik sustrairik gabe, ezta aurrerapenik oroimenik gabe ere. Eta gure ondareari buruz hartzen dugun erabaki bakoitzean, interes eta arduraz egindako keinu bakoitzean, berritzen da iraganaren eraikitzaileen eta haren biziraupenaren ardura dugunon arteko hitzarmen isil hura.

Horregatik, premia da gure erakundeek erabakitasunez sustatzea ondarearen zaintza eta herritarren artean iraganarekiko errespetua bultzatzea —etorkizunaren parte ere bada, azken finean, iragan hori—. Izan ere, beharrezko erreakzioak iritsi bitartean, gure ondarea urratsez urrats hondatzen ari da, eta harekin batera, gure nortasun kolektiboaren ordezkarekin den zati bat ere galbidean doa.

ZENBAKI HONETAN

2

Editoriala: Gure ondarearen defentsan

4

Euskal Pottoka

Nerea Agirresarobe Olagoy. Gipuzkoako Pottokazaleen Elkarteko Lehendakaria.

8

Eraikin historikoen osasuna

Gabriel Ruiz Cabrero. Kordobako Meskita-Katedralaren arkitekto kontserbatzaile/zaharberritzailea.

11

Euskal literatura

Maite López Las Heras. Filologo klasikoa eta idazlea.

17

Musika

Esteban Irusta. Oñatiko Parrokiako musikari organista.

21

Liburak

Pello Salaburu. Euskal hizkuntzalaria, pentsalaria eta idazlea.

25

Haizearen Ahotsetan

ETORKIZUNAK EKARRIKO DIGUNA. Iñaki Madison.

EUSKAL POTTOKA

ELKARRIZKETA

Nerea Agirresarobe Olagoy

Gipuzkoako Pottokazaleen Elkarteko Lehendakaria



Elkarriketa Zubixaren eskutik

Pottoka euskal mendietako bertako zaldi arraza zaharrenetakoa da, gure kulturaren eta naturaren sinbolo bizia. Mendeetan zehar, artzaintzan eta baserriko lanetan lagun izan da, eta gaur egun espezie babestua da. Bere izaera askea eta moldakortasuna nabarmendu ohi dira. Gaur Nerea Agirresarobe Olagoy, Gipuzkoako Pottokazaleen Elkarteko Lehendakaria, izango dugu gurekin, pottokaren egoera eta etorkizunaz hitz egiteko.

Nola deskribatuko zenuke Gipuzkoako Pottoka arraza zaintzearen egungo egoera?

Ba egoera oso ona duela esango nuke, Gipuzkoan Pottoka arraza osasuntsu dagoela esango nuke. Ez daude talde handiak baina lurralde osoan banatuta dauzkagu bazkideak bere taldetxoarekin.

Gipuzkoako Pottokazaleen Elkarteak, Pagoeta mendian bizi den Pottoka taldea ere kudeatzen du.

Zenbat ale daude gaur egun erroldatuta arrazaren erregistro genealogikoan, eta nola eboluzionatu du zentsuak azken urteotan Gipuzkoan eta Euskal Herrian?

2024 urte bukaerako datuak kontutan izanda, Euskal erkidegoan eta Nafarroan, 154 bazkide zeuden eta 2700 buru. Hauetatik, 65 bazkide eta 725 Pottoka Gipuzkoan daude.

Euskadiko erkidegoan, Lurralde bakoitzean hazle elkarte bat dago eta hauek Federazio bat osatzen dute: EPOFE (Euskadiko Pottokazaleen Federazioa), honek Pottoka arrazaren liburu genealogikoaren kudeaketa eramaten du. EPOFEk Nafarroako elkarteari zerbitzuak ematen dizkio.

Orokorrean erroldak nahiko egonkor daude, goranzko joera txiki batekin.

Zein alde nagusi antzematen dira gaur egun mendiko eta larreko Pottoken artean Gipuzkoan?

Hegoaldean, Pottoka arrazaren barruan ez ditugu banatzen mendiko eta larreko ataletan. Hemen atal bakarra dago arrazaren barruan, Pottoka arraza

Larruazalaren koloreei dagokienez, zein dira gaur egun ohikoenak? Tradiziozko tonuak, hala nola beltza, galtzen ari al dira?

Pottoka arrazak beltza bakarrik onartzen du, beste koloreak ez dira onartzen gure arrazan.

Nola kudeatzen dira gaur egun gurutzaketa kontrolatuak, dibertsitate genetiko mantenduz baina aldi berean arrazaren tipologia galdu gabe?

Gurutzaketa kontrolatuak odol lerro berri bat jarraitu edo zaldi talde baten odol berria sartu nahi delako egiten dira. Bestalde, odolkidetasuna saihesteko asmoarekin ere egiten dira, beti, erabiltzen diren animaliak Pottoka arrazakoak izanik.

Zein oreka jotzen duzu egokitze hautaketa-prozesuan, irizpide morfologikoen eta genetikoaren artean?

Orain arte egin den aukeraketa morfologikoa izan da gehien bat, baina era berean genetiko aldetik informazio asko bildu da. Esan dudana bezala, gaur egun Pottoka arrazako liburu genealogikoan dauden Pottoka guztien profil genetikoak dugu eta horrek orain aukera ematen digu aukeraketa genetiko egiteko.

Bi irizpideak batera joan behar dutela uste dut, arrazaren oinarritzko ezaugarriak ez galtzeko.



“Pottoka arrazak beltza bakarrik onartzen du, beste koloreak ez dira onartzen gure arrazan.”



Gaur egungo ADN-analisiek nahikoa informazio ematen al dute? Pirinioen bi aldeetan dagoen euskal banku genetiko bateratu bat sortzea lortu al da? Eta nolakoak dira harremanak Ipar Euskal Herriko hazleen artean?

Gaur egun, Pottoka arrazaren barruan erregistratzen diren pottoka denek dute bere profil genetikoa eginda. Denei egiten zaie filiazio froga bere aita eta ama ziurtatzeko. Aldi berean, arrazaren barruan hobekuntza sar dezaketen zaldien hazia lortzen da eta Espainiako banku genetikoan gordetzen da (Banco de Germoplasma)

Frantzian, Pottok arraza lantzen da eta araudi desberdina dute. Hau kudeatzen duen elkarteko kideekin harremanak izaten dira. Saiakera egin zen, beraien liburuan Pottoka arrazak dituen ezaugarriekin atal bat sortzeko, baina oraindik ez da lortu.

Bi elkarteek funtzionamendu desberdina dugu, eta oraindik bi aldeak lotuko dituen banku genetiko bat lortzea urrun ikusten dut. Hegoaldean bertako arrazen gordailu izan dadin banku genetikoa lortzea da gure erronka lehendabizi.

Zein dira gaur egun Pottoken Hazleen Euskal Elkartearen erronka nagusiak (finantzaketa, erroldak, zabalkundea, mugaz gaindiko koordinazioa)?

Gaur egungo erronka, Pottoka arrazari balio erantsi bat lortzea da, egunen batean laguntzak kentzen badira arraza bezala mantentzeko gai izan dadin.

Momentu honetan, hipikara zuzendutako proiektu bat garatzen ari gara. Horrela, zalditegietan erabiltzen diren poniak Pottoka arrazakoak izan daitezten lortzeko asmoarekin. Hau lantzen hasi zenetik poliki poliki emaitzak ikusten ari dira eta lanean jarraitzeko indarra ematen du. Gipuzkoako elkarteak Irunen dagoen Jaizubia zalditegiarekin hitzarmen bat sinatu du urtero pottokak lanean jartzeko asmoarekin. Horrela, arraza ezagutzera eman eta hipikako diziplina desberdinetan lantzen joateko.

Pottoka arraza beti baserri inguru, meategi, Nekazaritza lanetara lotuta egon da, lanerako arraza bat izan da.

Zein eginkizun betetzen du Pottokak paisaiaren kudeaketan: sastrakadiaren kontrola, biodibertsitatea sustatzea ala suteak prebenitzea?

Pottoka arrazari eman nahi zaion balio erantsiak beti lotua joan behar du arrazak duen errustikotasunari eta ingurune zailetara egokitzeko duen gaitasuna ez galtzen saiatu behar gara. Pottokak gaur egun ingurune desberdinetan bizi dira; batzuk larreetan, beste batzuk mendian urte osoan, etabar. Arrazaren gaitasun bat da bizi den ingurunera egokitzea. Horregatik, galderan aipatzen dituzun eginkizun guztiak betetzeko gai den arraza bat da Pottoka.

Uste duzu Pottokak berreskura dezakeela garai batean zuen ikusgarritasuna azoka, erromeria edo inauteri tradizionaletan?

Beno, ikusgarritasun hori gaur egun badu. Bere inguruan antolatzen diren erakusketa eta abarretan. Baina elkartearen asmoa horietatik pauso bat ematea da eta Pottoka arraza hipikako arraza erreferente bat izan dadila.

Gazteen artean edo hazle berri batzuen artean nabaritzen al da interesa gure zaldi autoktonoarekiko?

Bai, poliki baina sartzen dira bazkide berriak. Arraza ezagutzen duzun einean gehiago gustatu eta lotzen zaitu. Hasieran gutxiarekin hasten bazara ere zure taldea handitzen joateko arrazoiak ematen joaten dira Pottoka beraiek.

“Pottoka arrazari eman nahi zaion balio erantsiak beti lotua joan behar du arrazak duen errustikotasunari eta ingurune zailetara egokitzeko duen gaitasuna ez galtzen saiatu behar gara.”



Kuzko izeneko Pottoka puru batek Frantziako txapelketa nazionala irabazi zuen doma eta jauzi diziplina konbinatuan. Etorkizunik al du Pottokak paseozaldi edo kirol zaldi gisa?

KUZKO Pottok puru bat da, ez Pottoka, esan dudana bezala bi arraza dira Iparralden POTTOK eta Hegoalden POTTOKA, bakoitzak bere liburu genealogikoa du.

Pottoka arraza barruan baditugu diziplina desberdinetan txapeldunak izan direnak: AMERICAN DRAGON, jauzi diziplinan, Raid diziplinan 2024ean EMIR, RAMBO FORU, R-ERRAZKIN, GABE, ANBOTO, JOTAKE Pottokak domina lortu zuten Espainiako txapelketan.

Lehen esan dudana bezala, hori da arrazak gaur egun duen erronkarako bat: poni mailan, izan dadila arraza erreferente bat. Lan asko dugu aurretik baina poliki poliki pausoak ematen ari dira.

Hazlearen ikuspegitik, nola egin liteke Pottokaren hazkuntza errentagarri, benetakotasuna galdu gabe?

Bertako arraza gehienek erronka hori da. Errentagarritasun bat bilatzea. Azkenean, ez da lan erraza. Kontuan hartu behar dugu desagertzear zeuden arraza batekin lanean hasten garela eta 20 urtetan egin den lana ikusgarria izan da. Gaur egun ikusten diren Pottokak ez dute zer ikusirik hasiera batean ikusten zirenekin. Arrazaren barruan egin den lanarekin arraza definitzen duten zaldi eta behorrak lortu dira, eta orain beste pauso bat emateko garaia dela uste dugu, horregatik proiektu berriak lantzen ari gara.

“Euskal Herriko mendiko zaldia, beste arraza desberdin bat da”

Pottoka euskal arrazaren etorkizunerako hiru lehentasun zehaztu beharko bazenitu, zeintzuk izango lirateke?

- Arrazaren balioak ezagutzera eman.
- Pottoka arrazak lanerako dituen gaitasunak landu eta aukeraketa egin. Beti ere, bere oinarritzko izaera galdu gabe.
- Arraza merkatuan kokatu, lanerako arraza moduan.

Zein da desberdintasuna Pottoka, Potok eta Euskal Herriko mendi behor eta zaldien artean? Ba al dute zerikusirik?

Hiru arraza dira, Pottoka Hegoaldean dugun arraza da, bere ezaugarriak www.pottoka.info orrialdean ikus daitezke. Bestalde, Pottok arraza Iparraldean lantzen da, honek gurearekin duen desberdintasuna, arrazaren barruan onartzen dituzten koloreak, eta nahasketak dira, Bertan kolore beltza dutenak ere onartzen dira baina ez dute atal berezi bat.

Bestalde, Euskal Herriko mendiko zaldia, beste arraza desberdin bat da, ez duena zerikusirik Pottokarekin, honen ezaugarriak web orri honetan ikus daitezke: www.caballomontepaisvasco.eus

Azkenik. Zure ustez, ona litzateke Euskal Autonomia Erkidegoak Albaitaritza Fakultate bat izatea landa-eremuari buruz dauden lanbide-heziketako ikasketei jarraipena emateko?

Betiere ona litzateke albaitaritzako ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean bertan egin ahal izatea. Gertuena Zaragozan dagoela ikusita, hemen irakasteak bertakotasuna ere eman liezaioke. Horrela, errazagoa litzateke landa eremuan lan egitea erakargarri izatea.

ELKARRIZKETA: ERAIKIN HISTORIKOEN OSASUNA

Gabriel Ruiz Cabrero

Kordobako Mesquita-Katedralaren arkitekto kontserbatzaile/zaharberritzailea. Madrilgo Unibertsitate
Politeknikoko Proiektu Arkitektonikoetako katedraduna.



Elkarrietzeta eta argazkiak Zubixaren eskutik

En el mundo del patrimonio, la conservación no es solo una cuestión estética: es la clave para garantizar que los monumentos sobrevivan a las generaciones futuras. Conversamos con Gabriel Ruiz, experto en restauración y conservación monumental, sobre la importancia de la vigilancia constante, la coordinación institucional y las técnicas que se emplean para salvar del deterioro a joyas históricas como la Universidad de Oñate o la Mezquita-Catedral de Córdoba.

¿Qué importancia tiene una evaluación temprana y rigurosa del estado de un edificio histórico para evitar el deterioro que ha sufrido la Universidad de Oñate?

Es esencial. Igual que en medicina, cuanto antes se diagnostica una enfermedad, mejor es el pronóstico. Un edificio funciona de forma parecida al cuerpo humano: el deterioro empieza en un punto concreto y, si no se actúa, se propaga. Cuando la evaluación es precoz, aún no se han producido daños secundarios, y eso permite intervenir antes de que el problema se extienda y se acelere el proceso de destrucción.

¿Qué riesgos implica dejar pasar el tiempo entre el anuncio de un plan de restauración y su puesta en marcha?

El primer riesgo es que el mal se extienda a otras partes. Si hablamos, por ejemplo, de cubiertas dañadas, la entrada de agua acaba afectando a los forjados, los tabiques y todo lo que está debajo. El segundo es que el deterioro se profundiza en la propia materia: una piedra que al inicio puede recuperarse con relativa facilidad, con el tiempo se va deshaciendo hasta volverse irrecuperable. Cada día que pasa, el daño se multiplica.

La Universidad de Oñate está construida en piedra arenisca. ¿Qué males afectan más a este material?

La arenisca es un material muy frágil porque, en definitiva, es arena compactada. El agua se la lleva con una facilidad enorme. Una piedra arenisca sin protección está condenada a deteriorarse rápidamente. Por eso, históricamente siempre se ha protegido.

¿Qué técnicas modernas existen para proteger la arenisca?

Existen varias. Una son los productos químicos consolidantes, que endurecen la superficie de la piedra. Sin embargo, yo no soy partidario de abusar de ellos, porque muchas veces desconocemos cómo se comportarán a largo plazo. La solución clásica era proteger las superficies con enfoscados de cal, que servían de barrera natural contra el agua. Con las areniscas es más complicado que con las calizas, pero también se hacía.

“Un edificio funciona de forma parecida al cuerpo humano: el deterioro empieza en un punto concreto y, si no se actúa, se propaga.”

Y, cuando la piedra ya está muy dañada, no queda otra que sustituirla. Esto no es algo nuevo: todos los edificios antiguos han pasado por procesos de sustitución. Se retiran los sillares más afectados y se colocan otros labrados con las mismas características que los originales. Lo difícil es decidir qué porcentaje sustituir y cómo labrar las piezas nuevas para que encajen con las existentes. Cada edificio plantea un caso único.

¿Qué modelo de coordinación entre administraciones funciona mejor en estas intervenciones?

La coordinación es clave. Restaurar un edificio importante supone presupuestos muy elevados que una sola administración difícilmente puede afrontar. Por eso es necesario que varias instituciones se asocien. Esta unión no solo permite reunir fondos, sino también ofrecer garantías y cobertura institucional. Además, las entidades privadas —que a menudo deben contribuir porque el dinero público es limitado— solo se implican cuando ven que las administraciones están comprometidas de manera unánime. Esa implicación conjunta da seguridad de que la obra saldrá adelante.

¿Cada cuánto tiempo debería revisarse el estado de un edificio histórico como la Universidad de Oñate, la Catedral de Sevilla o la Mezquita-Catedral de Córdoba?

La vigilancia debe ser continua, casi diaria. No se puede pensar en inspecciones cada diez años: los monumentos requieren atención permanente. Si un edificio ha sufrido abandono, necesitará intervenciones más fuertes, pero el objetivo siempre debe ser la constancia. La conservación es un proceso de observación y mantenimiento continuo.





En la Mezquita-Catedral de Córdoba, ¿cómo llevan a cabo ese mantenimiento?

Allí tenemos un plan permanente. Las cubiertas, por ejemplo, son muy extensas y están construidas con materiales tradicionales: teja, madera, yeso, cal, plomo. Son frágiles y, si se sustituyeran por otros modernos, se destruiría la autenticidad del monumento. Por eso, todos los días hay cuadrillas de albañiles revisando, colocando tejas que se han movido por el viento o por los pájaros, limpiando canales de plomo y buscando filtraciones.

También tenemos programas anuales. Uno es el control de vegetación: si no se controla, primero aparecen hierbas y luego, literalmente, árboles. Cuando empecé a trabajar en la Mezquita, recuerdo haber visto higueras creciendo en algunos muros. Otro programa es la vigilancia contra termitas. Son insectos imposibles de erradicar completamente, así que siempre hay que estar atentos: unas veces aparecen en una zona, otras en otra.

Y, por supuesto, la prevención contra incendios. Hace poco hubo un fuego en la catedral, pero no pasó a mayores porque contamos con un protocolo perfectamente establecido con los bomberos: acuden en minutos y actúan de inmediato. Varias veces al año realizamos simulacros de incendio en lugares y momentos inesperados, precisamente para asegurarnos de que el sistema funciona.



En la Universidad de Oñate hay esculturas y relieves deteriorados, como los trabajos de Hércules. ¿Se pueden recuperar?

Hay que estudiar caso por caso. No solo lo que ya se ha perdido, sino también lo que queda: muchas veces hay grietas que anuncian desprendimientos futuros. Cuando el daño es muy grande, la única solución es sustituir las piezas por réplicas. Esto se ha hecho en muchos lugares: en Granada, con los leones del Patio de los Leones; en Córdoba, con una escultura de la Anunciación de Hernán Ruiz en la Puerta de las Palmas. Los originales se guardan en un museo y en el monumento se colocan copias idénticas.

Cuando el deterioro es menor, se pueden fijar químicamente las piedras sueltas, introducir varillas discretas que refuercen la estructura o adaptar piezas nuevas de la misma cantera. Son soluciones más quirúrgicas, pero muy eficaces si el daño no es masivo.

Recientemente un rayo dañó una figura en el tejado. ¿Es normal que un edificio histórico no tenga pararrayos?

No debería pasar. Desde finales del siglo XVIII, tras los descubrimientos de Franklin, los edificios del mundo comenzaron a protegerse con pararrayos. Es una técnica muy sencilla y efectiva. Un rayo puede destrozar una escultura, partir una piedra o provocar un incendio devastador. Es impensable dejar un edificio histórico sin esta protección básica.

Para terminar, ¿le gustaría visitar Oñate y conocer de primera mano su patrimonio?

Me encantaría. Esta conversación me ha hecho darme cuenta de la laguna que tengo en mi conocimiento sobre Oñate, y quiero resolverla. No solo la Universidad, sino también San Miguel, que es casi una catedral, y Santa Clara de Bidaurreta, donde se encontró el plano más antiguo de la Catedral de Sevilla. Oñate es un lugar que merece ser conocido y disfrutado.

“Un rayo puede destrozar una escultura, partir una piedra o provocar un incendio devastador.”

EUSKAL LITERATURA ELKARRIZKETA

Maite López Las Heras

Filologo klasikoa eta idazlea



Elkarrizketa Zubixaren eskutik

Maite López Las Heras (Azkoitia, 1985) filologia klasikoan lizentziatua da, eta idazlea, itzultzailea zein poeta da. Gaztelaniaz eta euskaraz sortzen du, eta bere lanetan literatura klasikoaren eta gaur egungo gai sozialen arteko zubiak eraikitzen ditu. Argitaratutako lanen artean daude *Pienso, luego escribo* (2018), *Safo. Poesía guztia* (2020, euskarazko lehen itzulpen osoa), eta *Amatu* (2022), amatasunaren inguruko saiakera literarioa.

Nola izan ziren zure ikasketak filologia klasikoan eta zerk bultzatu zintuen idazketara, itzulpenera eta poesiara ere heltzeko?

Gaztetatik oso garbi neukan Filologia Klasikoa ikasi nahi nuela. Betidanik izan dut mundu klasikoarekiko jakin-mina. Nerabezaroan, esaterako, neure kabuz irakurri nuen Homeroren *Iliada* obra epikoa, eta izugarri gozatu nuen, nahiz eta asko ulertu ez. Gehiago jakin nahi nuen eta egungo kultura ulertzeko antzinakoa ezagutzea funtsezkoa zela jabetu nintzenez, berehala hasi nintzen latina eta greziera ikasten, nire kabuz hasieran eta institutuan eta unibertsitatean ondoren.

Karreraren muina itzulpena zen. Testu klasikoak ekartzen genituen, bai euskarara (ikasgaia euskaraz zenean) bai gaztelaniara, eskuz eta Adimen Artifizialik gabe. Orain pentsaezina dirudien arren. Horrenbeste itzultzeak asko trebatu ninduen itzulpenarako eta, bide batez, baita zaletu ere, lizentziatuz geroztik itzultzen jarraitu dudalako. Itzulpen guztiak euskarara izan dira eta, klasikoei dagokienez, guztiak emakumeen testuak, gutxien ezagutzen ditugun egileak eta testuak direlako eta euskal literaturak hutsune hori zuelako.

Literatura arloan, oso umetatik eduki izan dut idazteko eta irakurtzeko zaletasuna. Gaztetan ipuinak idazten nituen batez ere, eta orain ere asko atsegin dudana generoa da. Olerkia ere betidanik oso gogoko izan dut, baina horretara beranduxeago heldu nintzela esango nuke, nolabaiteko heldutasuna eta ezagutza eskatzen duelako poesiak berataz gozatu ahal izateko. Gaur egun, berriz, gehien irakurtzen eta idazten dudana generoa da, agorrezina, tamalez, gure denbora ez bezala.

Hainbat liburu argitaratu dituzu: *Pienso, luego escribo* (2018), *Safo. Poesía guztia* (2020), eta *Amatu* (2022), besteak beste. Zein uste duzu dela zure liburuak lotzen dituen haria edo gai nagusia?

Nire liburuen ildo nagusia mundu klasikoa dela esango nuke, nire *modus vivendi* den hein berean. Hala ere, nire xederik nagusia bi munduak, klasikoa eta egungoa alegia, uztartzea da edo, hobeto esanda, bietaz baliatuz antzekotasunak azaleratzea eta gabeziak agerian uztea.


“Itzulpen guztiak euskarara izan dira eta, klasikoei dagokienez, guztiak emakumeen testuak”

Nire literatura-lanen gaiak askotarikoak izan arren, guztiak ardazten dituen haria batez ere gizakiaren kezka unibertsalak dira. Nire lehen poema-liburuan, *Pienso, luego escribo* izenekoan eta oraingoz gaztelaniaz argitaratu dudana bakarrean, nire gaztaroko sentipenak eta bizipenak daude; euskarazko *Amatu* saiakeran, berriz, amatasunaren gaia da liburu osoa goitik behera josten duena, kritika sozial kutsua duena eta ironiaz bete dagoena. Hala ere, aipaturiko azken liburu horrek oso egitura klasikoa du, bi ataletan banatzen delako: amatu aurretik eta amatu ondoren, kronograma historikoaren banaketa oinarritzat harturik. Biek ala biek, ordea, izenburutik bertatik hasi eta euren muineraino, mundu klasikoko ezaugarri ugari dituzte.

***Safo. Poesía guztia* lanean, Safo poetisa greziarraren testuen euskarazko lehen itzulpen osoa egin zenuen. Zein erronka aurkitu zenuen poesia arkaikoa euskarara ekartzean? Nola landu zenuen metrikoa, erritmoa, eta falta diren pasarteak?**

Safo euskaratzeko ideia aspalditik sortu zitzaidan, karrera garaitik edo, harrigarria egiten zitzaidalako literatura unibertsalean hain esanguratsua eta baliotsua den poetaren arrastorik ia ez egotea euskal literaturan. Hortaz, haren poesia aspalditik ezagutu arren, nahiz eta karreran landu ez, nire aisialdian eta tarteetan itzultzen hasi nintzen, apurka-apurka, ia jolas modura, nire greziera arkaikoa bizirik mantentze aldera eta erronka pertsonal modura. Bien bitartean, hizkuntza askotako itzulpenak irakurtzen nituen: gaztelaniazkoak, frantsesak, ingelesak, galegora ekarria eta abar.





Hasieran proiektu pertsonal gisa sortu zen hura, ordea, denborarekin gero eta sendoagoa bihurtu zen, ez poemen kopuruari dagokionez soilik, baizik eta baita nire buruan itzulpen hura egiteko hartu nuen moldeagatik ere. Beraz, orain arte guregana heldu diren Saforen poema guztiak euskaratu nituenean, esperantza handirik gabe hainbat argitaletxetara bidali nuen nire lana. Nire harridurarako, Balea Zuria argitaletxeak berehala erantzun zidan eta argitaratzearen alde agertu zen. Horrek itzultzen eta doitzen jarraitzeko indarra eta gogoia eman zizkidan.

Itzulpen-lana nekeza izan ez ezik, ikerketa lan handia ere egin behar izan nuen poema guztiak biltzeko eta hainbat iturrietatik egokiena irizten nuena hautatzeko. Horrez gainera, irakurlea testuinguruan kokatzeko lagungarria zen hitzaurre luze bat idatzi nuen, Saforen biografiari eta haren testuinguru historikoari buruz. Beraz, asko irakurri nuen haren inguruan, eta mitoa ustezko errealitatetik askatzen ahalegindu nintzen, baita egungo ikuspegitik ez begiratzen ere.

Hizkuntzari dagokionez, berriz, greziera arkaikoak berezko ezaugarriak ditu, klasikoarengandik desberdintzen direnak. Dialektoaren zailtasuna ere gehitu behar zaio, Saforen poesia eoliar dialektoan heldu zaigulako, Lesbos uharteko hizkeran, alegia. Euskara hizkuntza indoeuroparra ez izanik, bai lexikoa bai sintaxia ere berezkoa dituen, zailagoa da itzultzea, baina ez nuke esango hori denik itzultze-lanaren atalik zailena, nahiko ohituta nagoelako hizkuntza horietan.

Duela 2700 urte inguruko poesia denez, oso egoera txarrean heldu zaizkigu haren idatziak. Osorik, esaterako, bi poema baino ez zaizkigu heldu. Bederatzi poema-liburuetatik, osotara berrehun bat pasarte eskas jaso ditugu, denborak berak, zentsurak eta beste hainbat eragileren ondorioz, pusketaka baino iritsi zaizkigularik. Horrexegatik, metrika berreraikitzea ezinezkoa da, are gehiago greziar metrikak euskal baliokiderik ez duela kontuan hartzen badugu. Hortaz, egitura mantendu arren, metrika ezin izan dut ekarri. Gehienetan, pasarte solteak baino ez zaizkigu heldu, besorik gabeko estatuen antzera. Beraz, hutsunez beteriko poemak ditugu gaur egun. Hala ere, bertso-lerro bakoitzak sekulako indar poetikoa dauka, eta guztiak dira Saforen poesiaren isla. Isilune horiek Saforen poetikaren biziraute zailaren berri ematen dute.

Poesia lirikoa zenez, liraren edo musika-tresna baten laguntzaz abesteko poemak ziren, egungo abestien antzerakoak. Beraz, erritmoak berebiziko garrantzia zuen Saforen poemetan. Horregatik, hitzak aukeratzerakoan, erritmoa eta musikaltasuna aintzat hartu ditut.

Latina eta grekoa, hizkuntza klasikoak izateaz gain, indoeuropar familiakoak direla kontuan hartuta, zailtasun berezi bat sortzen al dute euskarara itzultzean, hizkuntza jatorri desberdinekoa izanik?

Ama desberdineko hizkuntzak izatea, berez, izan liteke oztopo bat batetik bestera itzultzerako orduan. Haatik, ez zait iruditzen jatorri desberdinekoak izatea denik zailtasunik aipagarriena. Funtsezkoa da hizkuntza horien ezagutza zabala izatea, batez ere sintaxiari dagokionez, eta bereziki helmuga-hizkuntzarena. Gramatika menperatu behar da, morfologia ondo ezagutu eta hizkuntza bakoitzaren esamoldeak eta zirrikituak itzulpena bizia izan dadin eta ez zurruna eta artifiziala.

Gaztelania jakiteak, hizkuntza erromanikoa denez gero, hizkuntza klasikoan ulermena errazten du, latinarena batez ere. Hala ere, gaztelania ez da deklinatzen, eta latina bai, baita euskara ere. Hortaz, familia desberdineko hizkuntzak izanik, guztien berezitasun eta ezaugarriak doitasunez ezagutzea ezinbestekoa da.

Grezieraren beste zailtasun bat alfabetoa bera izan daiteke edo dialektoak. Antzinako greziar testuak dialekto desberdinetan idatzita daude, koinéa edo greziera batua asmatu aurretikoak direlako. Beraz, zailtasun hori ere erantsi behar zaio aurreko zerrendari.

Eta, azkenik, hizkuntzek berez dituzten berezitasun horiez gain, literatura-generoek dituzten zailtasunak ere kontuan hartu behar dira, ez baita gauza bera poesia itzultzea edo prosaz idatzitako lan bat, ezta filosofiari edo oratoriari buruzko testu bat edo testu historiografiko bat.

“Hala ere, gaztelania ez da deklinatzen, eta latina bai, baita euskara ere”

**Zer esanahi du zuretzat bi hizkuntzatan lan egiteak —
gaztelaniaz eta euskaraz? Nola eragiten dizu euskarara
itzultzeak edo zuzenean euskaraz idazteak?**

Elebiduna izanik, bi hizkuntzatan jarduten dut etxean, amarekin euskaraz eta aitarekin gaztelaniaz. Hortaz, niretzako biak ala biak dira nire hizkuntza naturalak. Egia esan, ordea, euskaraz bizi naiz batez ere, lagunekin, familiarekin eta semearekin euskaraz jarduten dudalako. Filologia ikasketak, aldiz, gehienbat gaztelaniaz egin behar izan nituen, euskaraz zekien irakaslerik ez zegoelako. Hortaz, bietara itzultzen genuen; euskarara gutxiago, dena den.

Egiazki, bi hizkuntzatan eroso nago. Ogibidez irakaslea naizenez, askotan suertatu izan zait Gaztelania eta Literaturako eskolak ematea, beraz, lanean ere bietan aritzen naiz.

Argitaratu nuen lehen liburua gaztelaniaz izan zen, *Pienso, luego escribo* poema-liburua, hain zuzen. Gainontzekoak euskaraz argitaratu ditut. Askoz gehiago idazten dut euskaraz eta itzulpen guztiak euskarara egin ditut orain arte, batez ere euskal literaturako corpusean idazlan greko-latindarren gabezia handia dagoelako. Hala ere, bi hizkuntzatan sortzen eta itzultzen jarraitzeko asmoa daukat.

Amatu lanean amatasunaren inguruko gogoetak egiten dituzu ikuspegi askotatik. Uste duzu euskaraz idazteak ñabardura bereziak ematen dizkiela gai intimo edo unibertsal horiei, hala nola amatasunari, identitateari edo memoriari?

Amatu amatasunari buruzko saiakera bat da, amatasunaren kritika sozial bat. Bertan, ez da nire eskarmentu pertsonala soilik azaleratzen, baizik eta baita beste ama batzuen bizipenak eta behaketaren bitartez jaso ditudan pasadizoak ere. Liburua aita guztiei eskainita dago, oso adierazgarria iruditzen zaidalako amatasunari buruzko liburuak egotea eta aitatasunari buruzko bat bera ere ez. Afera horrek zer pentsatu handia ematen dit eta asko hausnartu dut gai horri buruz, baita aita diren beste idazle askorekin horri buruz aritu ere. Hala ere, jaso ditudan erantzun gehienak gizonaezkoenak izan dira eta asko goraipatu dute liburua eta eskertu didate liburua idatzi izana. Horrez gainera, Euskadi Literatura Sarietako hautagaia izan zen sakaieraren kategorian.

Amatasuna gai intimoa bezain unibertsala da. Denok gatoz ama batetik. Gure gizartean ama izateak zer esan nahi duen aztertu nahi izan dut, zer bihurtzen den amaten den emakume bat, nola jokatzaren dugun ama garenok gizartean eta gizarteak nola jokatzaren duen amekin. Zer aldatu den eta zer ez. Errepikatzen diren jokamoldeak azaleratu ditut.

**“Horrez gainera, Euskadi Literatura
Sarietako hautagaia izan zen
sakaieraren kategorian.”**

Ez dakit euskaraz izateak ñabardura bereziak eman ote dizkion gaiari edo liburuari. Nik, emakume gisa, aspalditik izan dut amatasunari buruzko kezka eta betidanik nahi izan dut literarioki landu. Saiakera literarioa izatea nahi nuen, eta euskaraz idatzi nahi nuen. Egia esan, hizkuntzarena ez zen hautua izan, horrela sortu zitzaidan. Izenburutik bertatik ernatu zen liburua. Gaztelaraz idatzi izan banu ere, egitura berbera eta ironia bera erabiliko nituzke. Ez dut uste hizkuntzak liburuaren tonua aldatuko lukeenik.



Nola ikusten duzu gaur egun klasikoen itzulpenak euskarazko literaturan duen papera? Zein eragin izan dezake zure ustez irakurle gazteengan edo klasikoekin hainbeste harremanik ez duten hiztunen artean?

Ulertzen dut klasiko greko-latindarrak irakurtzeak nolabaiteko kultura eta ezagutza eskatzen dituela, eta egungo irakurle gazte askok ez daukatela. Halere, baikorra izan nahi nuke, eta euskal irakurle oso onak daude, klasikoen euskarazko itzulpenak balioesten dituztenak.

Garrantzitsua da, esaterako, gaur egun Unibertsitateko Sarrera Probako Latineko azterketan, literaturako galdera emakume idazleei buruzkoa izatea, hau da, nik itzulitako poetandreena. Horrek mundu akademikoan testu klasikoen eguneraketa gertatu dela erakusten du. Beste kontu bat da, ordea, gero benetan eskoletan gai hori lantzen den ala ez.



Edozein belaunaldietan klasikoen irakurzaleak oso gutxi izan dira. Ez da oso ohikoa gazteek literatura klasikoa irakurtzea. Oso noizbehinka aurki daitezkeen salbuespenak baino ez dira berez klasikozaleak diren gazteak. Ni horietako bat nintzen, *rara avis* bat.

Egungo hezkuntzako curriculumean ere hizkuntza eta kultura klasikoari egiten zaion bazterkeriak lotura handia eta zuzena dauka klasikoen egoera eskasarekin. Horiek horrela, oso zaila da klasikoak egungo irakurleengana hurbiltzea. Hala ere, hori da nire erronka pertsonaletako bat, eta horregatik egiten ditut bai itzulpenak bai *Poesia Pilulak* izeneko bideo errezitaldi laburrak.

Uste duzu administrazioek behar adinako babesa ematen diotela testu klasikoak euskarara itzultzeari? Zein filosofo edo poetaren lan uste duzu bereziki garrantzitsua izango litzatekeela gure hizkuntzan izatea?

Gaur egun ez dago klasikoak euskaratzeko diru-laguntza zehatzik. Beka eta sari guztiak beste genero eta esparru batzuetara bideratzen dira. Safo eta Poetandreak kontuan hartuz gero, lehenbizikoak Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso zuen argitaratzerako oduan; bigarrenak, berriz, ez zuen inolako laguntzarik jaso. Ekimena neurea izan zen guztiz, eta borondatea, osorik, editoreena. Oso eskerturik egon arren, horrek euskal literaturari eta klasikoak itzuli nahi ditugun itzultzaileoi mesederik egiten ez diola iruditzen zait. Babesgabetasunak itzultzen jarraitzeko gogoaren haria mozteko arrisku handia dakar, eta horren ondorioak ez dira batere aberasgarriak euskarazko literatura sendotzea nahi badugu. Nik neuk *gratis et amore* itzultzen dut, harik eta amore eman arte.

“Gaur egun ez dago klasikoak euskaratzeko diru-laguntza zehatzik. Beka eta sari guztiak beste genero eta esparru batzuetara bideratzen dira.”


Beraz, klasikoak euskaratzeko baliabideak egon beharko luketela uste dut, hizkuntzak zubiak direlako eta era horretan literatura aberastu ez ezik, irakurleek euskaraz irakurtzeko aukera izango lukete, beste hizkuntzetara jo behar izan gabe. Nire ustez, oso adierazgarria da ze liburuk osatzen duten edozein hizkuntzatako literaturaren bilduma, bai gaiei dagokienez, bai generoei, bai itzulpenei, bai egileei ere.

Duela urte batzuk “Pentsamenduaren klasikoak” izeneko Elkarte Anonimoak egundoko ekarpenak egin zituen pentsamenduaren historian garrantzia eta eragina izan duten idazkiak euskaraz paratzeko asmoz. Egun, zoritxarrez, ez dago halakorik. Guztira 130 liburu euskaratu zituzten, horietako batzuk greko-latindarrak izanik: Aristoteles, Platon eta Plutarko, esaterako.

Hortaz, itzulpen horiez gain, uste dut ia beste edozein testu greko-latindar euskaratzea oso baliogarria izango litzatekeela, baina guztia ekartzea ezinezkoa denez, Virgilioren *Eneida*, Senekaren edozein, Marko Aurelioren *Meditazioak*, tragediak eta komediak, eta beste asko aipatuko nituzke. Beste batzuk euskaratuta egon arren, eguneratzea komeni dela irizten diot, *Iliada* kasu. Eguneraketa funtsezkoa baita lan horiek egungo irakurleengana hurbiltzea bada helburu nagusia, liburu bizi gisa, eta ez inork irakurriko ez dituen kopuru soil bezala.

Julio Zesarren Gallietako Gerra, Homeroaren Iliada eta Odisea, Virgilioren Eneida, Platonen Errepublikak, Aristotelesen lanak, Sofoklesen eta Eskiloren tragediak edo Zizeronen diskurtsoak euskarara itzulita daude dagoeneko? Eta ez badaude, uste duzu horretarako proiektu espezifiko bat egon beharko litzatekeela?

Aurretik esan dudanaren harira, uste dut oso beharrezkoa dela klasikoak itzultzeko proiektu zehatzak egotea. Horrek bulkada handia emango lioke euskal literaturari ez ezik, baita horretan dihardugun itzultzaileoi ere. Egun, diruaren ibaia beste itsaso batzuetan amaitzen da.



Iragan mendeko azken hamarkadan sortu eta dagoeneko hilda dagoen *Pentsamenduaren klasikoak* bilduman Aristoteles, Herodoto, Senekaren *Bizitzaren laburtasunaz*, Tuzidides, Plutarko, Tazito, Platon, Vitruvio eta filosofo presokratikoak daude euskaratuta. Badira klasikoen beste itzulpen batzuk ere, Epikuroren *Zoriontasunaren defentsan* edo Homeroren *Odisea* berriki euskaratu direnak, Katakarak eta Balea Zuria argitaletxeei esker, hurrenez hurren. Ikusi beharko litzateke, ordea, ze baldintzatan eta zeren truke egiten diren itzulpenak gaur egun, gehienetan borondatez eta musu-truk egiten baitira, eta horrek ez luke, nire ustez, inondik ere horrela izan behar, hori ez baita literatura-sistema osasuntsu baten ondorio.

Bizenta Mogelek Esoporen fabulak euskaratu zituen, esaterako. Zalanza egiten dut, oster, gaur egun norbaitek argitaratuko ote lukeen, ez baita batere erraza lan klasikoak argitaratzeko prest dagoen euskal argitaletxe batekin topo egitea. Hala erakutsi dit behintzat nire eskarmentuak.

Halako lan mardulak eta sakonak itzultzeko, denboran hain urrunekoak eta hain hizkuntza arrotzekoak izanda, denbora asko behar da, ezagutzaz gain. Orainsu arteko itzulpen gehienak apaizek egiten zituzten, biak zituztelako: denbora eta jakintza. Gaur egun klasikoen itzulpena argitaratzeak inolako bermerik ez duenez, ezinbestekoa da itzultzailearen aisialdi apurrean egitea, eta horrek kalitatean ere eragina izan dezakeela onartu behar dugu, nekeak eta denboraren mugak baldintzatzen dutelako askotan lan hori. Beraz, gero eta apaiz gutxiago dagoenez, eta klasikoak itzultzea arrisku-kirola denez, gutxi batzuen borondatearen esku baino ez dago testu horiek euskaratzen jarraitzea, inolako sostengu eta ziurtasunik gabe.

Amaitzeko, zein proiektu dituzu orain esku artean? Klasikoak itzultzen jarraituko duzu edo norabide berriren batean murgiltzea duzu helburu?

Esku artean beti izaten dut proiekturen bat edo gehienetan bat baino gehiago. Berez daukadan denborarako gehiegi, egia esan. Hala ere, buruan askoz proiektu gehiago izaten ditut, beti ideia bat izan ohi dudalako, sarritan, horiek guztiak gauzatu ezin izateak eragiten didan sentipen etsigarriarekin batera.

Beti idazten ditut poemak, han-hemenka, buruan zirta sortu ahala. Berehala kaleratuko dut nire lehen eleberria. Nobela historikoa izango da, trilogia bat. Oraintxe bertan, zuzenketa-lanean murgildurik nago. Poesia-liburuen erreseinak idazten ditut hilero eta iritzi-artikuluak tarteka. Itzulpen bat amaitzen ari naiz. Grekotik euskarara, argia ikusiko duelakoan.

Gaztelaniazko lan bat ere badaukat, enkarguzkoa. Erronka handia, baina zinez pozgarria niretzat. Baita mundu klasikoari buruzko saiakera bat ere, euskaraz.

Norabide berriak bilatzen jarraituko dut. Ez dut genero bakarrarekin konformatu nahi, genero desberdinetan aritzea oso kitzikagarria baita niretzat, eta egile gisa, oso aberasgarria. Itzulpenekin jarraituko dut, batez ere hainbeste maite ditudan nire latina eta greziera ez herdoiltze aldera. Oso neketsua eta lan itzela eskatzen duen ofizioa da itzulpengintza, beraz, indarraren, denboraren eta gogoaren arabera zuzenduko dut ekingitza hori, ez nik nahi nukeena adina, ahal dudanaren arabera baizik.



MUSIKA ELKARRIZKETA

Esteban Irusta

Oñatiko Parrokiako musikari organista



Elkarrizketa Zubixaren eskutik

91 urte dituela, Estebanek buru-argitasuna, sentsibiltatea eta musikarekiko maitasuna mantentzen ditu oraindik, haurtzarotik harekin batera etorri izan direnak. 1934an Munitibarren (Bizkaia) jaiota, gerra zibilaren oihartzunak, ondoko berreraikuntzaren urteak eta Oñatiko loraldi musikala bizi izan zituen: herri bat non erlijio-arteak eta organoek hainbat belaunaldi markatu baitituzte. Harekin hitz egin dugu bere ibilbideaz, organoarekiko grinaz, munduaren ikuskeraz eta desagertu nahi ez duen tradizio baten etorkizunaz.

Haurtzaroa eta gerrako oroitzapenak

“Nire herria eta Gernika egun berean bonbardatu zituzten. Lehena bigarrenetik 13 kilometrora dago doi-doi, eta anai-arrebek kontatzen zidaten nola jausi ziren bonbak Arbatzegiko San Bizente elizaren gainera. Ni oso txikia nintzen (bi urte eta erdikoa bakarrik), baina zuloak, beldurra eta gauzaturiko kaltea gogoratzen ditut. Gernika erabat suntsituta gelditu zen; irudi hori ezin da ahaztu.”

1934ko abenduaren 26an jaioa, Esteban aldi berean gerraren hondakinen eta amaren kantuen artean hazi zen. “Emakume hark musika bihotz-bihotzez bizitzen zuen. Bederatzi seme-alabarekin alargundu zen, eta egun osoa kantuan igarotzen zuen. Uste dut musikarekiko zaletasuna harengandik etorri zitzaidala.”

Lehen urratsak musika munduan

“Hamar urte nituelarik etorri nintzen Oñatira, non ene osaba Luis Mallea baitzegoen (Buenos Airesen 1939an Lagun Onak Orfeoiaren sortzaileetako bat izan zena, euskal emigratzaileekin osatua), ene analetako bat hemen ere bizi zelarik. Etxean musika-tradizio guztiz sendoa genuen. Txikitatik entzuten nuen jendea kantuan eta jotzen, musika bizitzen.”

“10-11 urterekin hasten zen solfeoa eta kantua ikasten. Gero, beste mutiko batzuekin batera, pianoarekin hasi nintzen. Ondoren harmoniuma eta organoa etorriko ziren. Komentuan organista onak zeuden, eta liluratzen ninduen haien jotzeko modua entzuteak. Bestalde, egunero intonatzen zen kantu gregorianoa.”

Bere familia Agustindarren komentuekin lotua egon izan zen (komunitatea sortu zen une beretik), eta ingurune honek markatu zuen bere patua. “Komentuan musika ugaria egiten zen. Ekitaldi liturgiko guztiak kantu eta organoz lagunduta egiten ziren. Giro musikal zoragarria zen: Oñatin duela zenbait mendetatik organogileak eta organistak egon izan ziren, beraz, alde guztietan musika arnastu egiten zen.” “Han sortu zen nire musikarako bokazioa.”

Organoaren eta Bachen aurkikuntza

“Entzun nituen lehen obretako bat Bachen Re minorreko Toccata eta Fuga izan zen. Soinu harekin maitemindu nintzen. Pieza hura entzun nuen unetik beretik organoa jo nahi nuen.”

Lehenago esan den bezala, Estebanek hamar urte zituenean pianoarekin hasi zen, eta hamazazpirekin jada organoa jotzen zuen. “Handik sortu zen guzti-guztia. Lesakan, non denboraldi batean destinaturik egon bainintzen, giro musikal itzela zen. Han ezagutu nituen ahots-maistra María Teresa Hernández Usabiagak prestaturiko abeslariak eta Pepito Yanzi musikari handia, ezkontza askotan laguntzen zuena. Garai hartan musika bizirik zegoen herrietan.”



Organista lanetan egindako jardunbidea

“Oñatin urte askotan jo izan dut, baita Lesakan, Donostian eta beste hiri batzuetan ere. Oñatiko abesbatzari lagundu nion, datorren urtean 60 urte beteko dituen. Donostiako Santa Marian Madinaren obra bat eta Nicanor Zabaletari eskainitako sonata bat jo nuen.”

Bere jarduerak Espainiatik kanpora ere eramanean zuen: “Austriara bidaiatu nintzen, San Florian monasteriora, non Anton Bruckner konpositore handia organista izan baitzen. Bertan zenbait aldiz jo nuen; leku ikusgarria da. Baten batzuek esaten dute Bruckner, Beethovenen ondoren, sinfonistarik hoberena izan zela.”

Oñati, mundua eta irekitasun kulturala

“Komeni da garai hartan komentua bisitatu zuten musikoei erreparatzea. Hauen artean Aita Donostia eta Licinio Refice aipatu nahi ditut, maiz interpretatzen genituen lan batzuen egileak.

Aita Donostiari buruz gutxi dago esateko, pertsonaia ezagun-ezaguna baita. Aitzitik, Licinio Reficeri dagokionez, nabarmendu behar dugu berak konposaturiko meza asko kantatu ohi genituela, nahiz eta musikari hau ezagunagoa den bere Salve ospetsuagatik, abuztuaren 14 guztietan Donostiako Santa Maria elizan Orfeón Donostiarrak interpretatzen duena.

Nazioartean izen handiko beste musikari bat izan zen Nicanor Zabaleta arpa-jotzailea, Oñatin bi aldiz egin zituen interpretazioak. Gizon honek harreman berezia zuen Laterandarrekin, bere aitak berak gaztetan haiekin estudiatu baitzuen.

Halaber, José Azpiazu gitarra-jotzaile oñatiarra ere etorri ohi zen komentura ospakizun batzuk alaitzera. Geroago ere, Genovara joana zelarik, hiri hartan gitarra-katedra sortu zuen.

Lesakara organista bidali nindutenean, konturatu nintzen ezen, herri txikia bazen ere, tradizio musikal handia zuela. Musikari handi hauek ezagutu nituen, bertakoak zirenak: Miguel Etxebeste eta Luis Taberna, organo-kontzertistak; Pascual Olabe, konpositorea; eta Pepito Yanzi, Los Xey taldeko akordeoilaria. Halaber, Tolosako Feliciano Beobide musikaria, Miguel Etxebesteren arrebarekin ezkontuta zegoena.”

“Kanonigo erregularren komentua fundazio italiarra izan zen, Erromari lotua. Erromarekiko harremana oso garrantzitsua izan zen betidanik. Kanonigoak Erromara ikastera bidaltzen zituzten, baina baita Frantziara, Ingalaterrara edo Lovainara ere. Oñati herri txikia izan arren, lotura estua mantentzen zuen Europako kulturarekin.” Estebanek gogoratzen du kanonigoek nola zeukaten bizitza intelektual bizi-bizia:

“kideak ezagutu nituen Lovainan ikasten zutenak eta beste batzuk Frantziatik etorriak. Hango bisitak ere jasotzen genituen. Austria zailagoa zen hizkuntzagatik: alemaniera konplikatu zen, baina batzuek mintzaira hartaz hitz egiten zuten. Ni aski bidaiatu nintzen: lehengusu bat nuen Erroman ikasi zuena, eta berarekin uda batzuetan Austriara joaten nintzen. Han ezagutu genituen monasterioak zeinetan Bruckner organista izan baitzen eta lurperaturik baitago. Esperientzia zirraragarria zen.”

Orainaldiari buruz, Estebanek zera hausnartzen du, orokor apur batekin: “Lehenago munduari irekiagoak geunden. Gaur gazteak asko bidaiatzen dira, bai, baina batzuetan burbuila baten barruan bizi dira. Bada jende ona, noski, baina ez naiz baikorregia gaur egungo egoerarekin.”

“Arantzazu” poema eta kontzertu handiak

“Esan behar dut ez nuela soilki bakarkako kontzertuak eskaintzen jardun. Aitzitik, urte askotan zehar Oñati Abesbatzari lagundu izan nion, batzuetan beste koru batzuekin indartu behar zena (Elgoibargoarekin, Burladakoarekin edo Lesakakoarekin, esaterako), exijentzia handiko lanetan: adibidez, Aita Madinaren Aránzazu Poema. Konposizio hau bereziki zorrotza da bai abesbatzarentzat bai organistarentzat, zeren Madinak orkestrarekin edo organoarekin lagunduta jotzeko aukera ematen baitu.”

Madriren izandako ustekabe bat umorez gogoratzen du: “Organoa modernoa zen, erregistro elektronikoekin. Guztia programatuta utzi nuen eta, kontzertuaren aurretik, abesbatzako norbaitek tekla ukitu zizkidan eta konbinazio guztiak ezabatu! Den-dena inprobisatu behar izan nuen!”

“Oñatiko abesbatzari lagundu nion euskaldunen San Inazio elizan. Han jo genuen Arantzazu Poema, basilika berriaren ohoretan konposatua (atzo bertan bete ziren 68 urte bere inauguraziotik): Bilboko Orkestrak eta Donostiako, Oñatiko eta Arantzazuko abesbatzek parte hartu zuten.”



Oñatiko organoak

Oñatiko Eliza eta komentu guztietan daude organoak. Handienak eta bikainenak parrokiakoa eta Arantzazukoak dira. Duela urte batzuk, parrokiakoak fumigazioa jaso zuen, baina akats batzuen ondorioz, erregistro batzuk erabilezin bihurtu ziren. Une honetan, proiektu bat martxan dago konponketa oso bat egiteko, balio handikoa delako.

Organo hauei gehitu behar zaie auzo guztietan dauden harmoniumak, bertako jai egunetan erabiltzen direnak. Denak egoera onean daude. Oñatiko organoez aparte, Lesakan nengoela, inguruko herrietako organoak ere jotzeko aukera izan nuen. Baita Bizkaiko batzuk ere.

Tartean, Bilboko katedralakoa eta San Antongoa, Lekeitiakoa, Durangakoa, Iurretakoa, Lemoizkoa, Gorlizkoa, Urkiolakoa, Gernikakoa, Arrazuakoa, Markinakoa, eta nola ez, neuk oparitako Munitibarkoa. Eta Gipuzkoan, Donostiko Santa Maria eta San Bizentekoa, Arrate eta Loiolako Santutegikoak, Arrasatekoa, Bergarakoa, Eskoriatzakoa, Eibarkoa, eta abar.

Corcosteguiaren aldaketak eta berrikuntzak

“Organoak soinu hobea egiten zuen bere jatorrizko kokagunean, zeren bi fatxada baitzeuzkan, hodiak aurrealdean eta atzealdean erakutsiz. Baina hormaren kontra ezarri zutenez geroztik soinuaren parte galdu zuen. Hala ere, oraindik presentzia ona mantentzen du.”

Estebanek gogoratzen du organoa jatorrizko lekuan jotzen zuen garaia: “Gaztea nintzen eta haren soinuak liluratzen ninduen: bazen leuna eta zeharo inguratzen zintuena... Orain bestelakoa da, baina elizaren bihotza izaten segitzen du.”


Belaunaldien arteko erreleboa

“Badaude gaur egun musika-eskolak, bai, baina ez dira gauza bera. Badaude gazte talentudunak (koruko neskatxa batek, adibidez, gaitasun onak ditu), baina zenbaitetan ez dute nahi parrokia batekin konprometitu edo lanbide honek eskatzen dituen ordutegiak onartu. Jarraipen falta nabaritzen da.”

Izpiritualtasuna musikan

“Nik beti esan izan dut Bach kanonizatu beharko litzatekeela. Bere musikak goratu egiten nau, espiritualitatetik hurbilago sentiarazten nau. Horrela konposatzeko ezohiko sentsibilitatea eduki behar da.”

Bachez gainera, Aita Madina miresten du oso: “Bere Ave Maria aparteko bitxia da. Guk organoarekin kantatzen dugu, baina badu orkestrarako bertsioa ere. Sentiberatasun harrigarria zuen.”



Beste tresnak eta irakaskuntza

“Bizialdi osoan izan naiz irakasle. Txirula neure kabuz ikasi nuen umeei irakasteko. Donostian eta beste leku batzuetan eman nituen klaseak. Musika beti egon da nire bizitzan.”

Orainaldia

“Jarraitzen dut musika jotzen eta jarraitzen dut bizikletan ibiltzen, nahiz eta orain paseo txikiak besterik ez egin. Lehenago Bergararaino edo Legazpiraino joaten nintzen, orain herrian barna mugitzen naiz soilki. Baina aktibo jarraitzen dut, hori bai.”

Agurra

Fedea, artea eta diziplina uztartzen dituen tradizio baten testigu bizia da Esteban. Bere bizitza osoa organoko tekletan idatzita dago, zeinetan denbora —musika bezala— inoiz ez baita gelditzen...

LIBURUAK

ELKARRIZKETA

Pello Salaburu Etxeberria

Euskal hizkuntzalaria, pentsalaria eta idazlea



Elkarrizketa Zubixaren eskutik

Pello Salaburu Etxeberria euskal hizkuntzalaritzaren eta pentsamendu kritikoaren erreferenteetako bat da. Euskara eta unibertsitatearen alde egindako ibilbide luze baten ondoren, *Panfleto bat atzenduraren kontra argitaratu* du orain, gizartearen oroimenaz, azken iraganaz eta aurrera egiteko beharraz hausnartzera gonbidatzen gaituen saiakera premiazko eta probokatzailea. Gaur haren lan berria hobeto ulertzeko hitz egingo dugu berarekin.

Zerk eraman zintuen “panfleto” bat idaztera eta ez liburu akademikoago bat?

Beste lan luze batean nago murgildua azkeneko urteetan, baina inguruan gertatzen dena ikusirik, eten bat egitea erabaki nuen eta hausnarketa honi bide ematea. Ez da, zentzu batean, lan akademikoa, baina munduko leku askotako erreferentziez betea dago. Jatorrizko lanen aipamenak guztiz murrizturik utzi ditut, irakurketa arinago egin ahal izateko eta “akademia” zama kentzeko: aipamenetan egilea eta lana ematen ditut, beste xehetasunik gabe. Horregatik, eta hautatu dudan estiloagatik, panfleto baten itxura hartzen du batzuetan. Baina berez lan sakona da, eta ongi funtsatua.

Azkeneko urteetan egin ditudan irakurketa askok eraman naute liburuaren idaztera. Gertatzen ari denak sorraz didan kezka, batetik. Holakoak mundu osoan, eta neurri batean berdintsu, gertatu izan dira eta gertatzen dira. Eta, hori da beste arrazoi bat, inguruan gertatzen dena gertatzen ari dela, nire lekukotza argi utzi nahi izan dut. Liburuan argudio garatuak erabiltzen ditut, horretan saiatu naiz bederen, erraz eztabaidatzen diren topiko edo baieztapen hutsetatik urrunduz.

Liburuan diozu ahazteak prezio handia duela biktimizat. Zer da zuretzat “bigarren biktimizazioa”?

Muturreraino eramaten diren gatazka abaguneetan, normalean, gehien sufritzen dutenak biktimak dira. Inpresioa dut askotan ez zaizkiola, funtsean, inori ere inporta. Haien aldeko oihua da liburua. Norbait hil ondoren, familiari telefonotik deitu eta irain egiten zaionean, barre eginez, berbiktimizazioa gertatzen da. Hildakoaren hilobian utzitako loreak xehatzen direnean, berdin. Biktimak interes politiko bihurturik erabiltzen direnean; Intxaurrendoko buru famatu hari domina bat ematen zaionean; presidente ohia delitugile batzuk agurtzera kartzelako atera joaten denean; Zabaltza bus gidaria biktimizat hartzen ez denean; Iparraldean desagertutako batzuen gorpuekin zer egin zuten esan nahi ez denean; torturatu baten hitzak apalesten direnean; gertatuko historia ahaztea hobe dela esaten denean; preso bati barkamena eskatzea debekatua dela esaten zaionean... Horiek guztiak dira berbiktimizazio egoerak. Horietan guztietan biktimak bigarren aldiz zigortuak gertatzen dira.

Baina ahazte hori oso selektiboa da: orain dela 25 urte gertatzen dena ahaztu behar omen da, baina ez orain dela 80 urte gertatu zena.

Uste duzu Euskal Herrian ondo kudeatzen ari dela iraganaren memoria? Zer falta da oraindik egiteko?

Ahal dugun bezala ari gara kudeatzen. Hori mundu osoan gertatzen da hola. Gauza askoren egia jakitea falta zaigu, hasteko: badira hemen hildakoen ehunka atentatu argitu gabe; badira eraildakoen gorpu desagertuak, oraindik ezkutatu nahi dituztenak (Irlandan baina gehiago, bide batez); ez dakigu nork eman zuen agindua talde ultraeskuindarrak sortzeko. Hori ezagutu gabe nekez egin daiteke justiziarik. Ez dira jarri oinarri sendoak gertatu dena berriz ere gertatuko ez dela segurtatzeko: gure kaleetan hiltzaileen pankartak eta pintaketak ikusten segitzen dugu. Eta ezin dugu esan gertatutakoaren memoria nahi dugula, aldi berean esaten badugu aurrera behatu behar dela, ez atzera. Atzera begiratzea bizikidetzaren kontrako zerbaite dela. Orain beste fase batean omen gaude. Baina ahazte hori oso selektiboa da: orain dela 25 urte gertatzen dena ahaztu behar omen da, baina ez orain dela 80 urte gertatu zena. Tranpa hutsa da hori. Hala ez goaz inora ere. Abiapuntu sendorik gabe nekez aurreratuko dugu. Zenbat denbora gainetik ezin kendu Francisco Franco Fundazioa? Normaltzat har daiteke hori?

Liburuan Irlandako edo Alemaniako kasuak aipatzen dituzu. Zer parekotasun eta alde ikusten dituzu gure errealtatearekin?





Bai, eta beste hainbeste tokitakoak ere. Egoera desberdinak dira. Baina Irlandan gertatuarekin antzekotasun handiagoa ikusten dut, nahiz hango eskalak eta hemengoak aski desberdinak diren. Ez dut azterketa akademikorik egin, hori historialarien kontua da. Nahiago izan dut historia pertsonaletan zentratu, gertatzen dena argitu ahal izateko: zer sentitzen zuten, zer ikusten, Auschwitzen edo beste kontzentrazio esparruetan preso izan zirenek? Zergatik egon dira urteetan isilik? Zer, bahitua izan den norbaiten familiak? Zer, hiltzaile batek? Zergatik ahaztu nahi du buruzagi demokrata batek inguruan gertatua? Zergatik babesten du tortura edo norbait hiltzea estatuaren indarra erabiliz? Zergatik gorai patzen dira, munduko hainbeste tokitan, hiltzaileak? Zergatik normalizat hartzen dugu ideologia baten izenean (kasurik hoberenean, askotan ez da hori ere) aldameneko auzokidea erailteaz? Zergatik ez ditugu biktimak behar adina kontuan hartzen? Zergatik horrenbeste miseria moral eta etika falta handinahia duten ideia batzuen azpian? Gatazka guztietan, mundu osoan, sistematikoki errepikatzen dira holako jarrerak. Nekez ulertzen ahal ditugu. Nahiago baitugu pentsatu holakoak munstro batzuek bakarrik egiten dituztela, horrekin lasaia gozatzeko gara. Baina ez dira munstroak: Drakulić-ek dioen gisan, zu eta ni bezalakoak dira. Eta Primo Levik esan zuen juduen jazarpena gizakiaren lana zela, eta "gu" (juduek ari zen, bera judua baitzen) gizakiak garela. Orain ikusten dugu Palestinakoa. Horrek guztiak, izugarrikeriak jende arruntak sortzea, ezinezona sortu behar liguke.

Alde horretatik begiraturik parekotasun amaigabeak aurki daitezke. Baina gertatuaren eskalak, egoerak, berriz ere diot, oso desberdinak dira leku batean eta bestean. Konparazioa beste arlo batzuetan egin behar da.

“Aurrera begiratzera” gonbidatzen gaituzu. Zein oztopo daude gizarte gisa aurrera egiteko?

Lehen aipatu dut: hasteko, borondatea behar da. Aurrera behatzeko borondatea atzera behatuz eta onartuz erakusten da: txarto egin diren gauzak txarto egin direla, berdina da nork, onartzeko borondatea. Hori da abiapuntua. Ezin da aurrera begiratu atzekoa ahaztuz, atzekoa kontuan hartu gabe. Bizikidetzat indartu nahi badugu, hori da bidea. Gertatua argitzeko Egiaren Batzorde bat sortzea aski egokia litzateke, nire ustez.

Zein izan beharko litzateke gazteen eginkizuna memoria eta aldaketa prozesu honetan?

Munduan gauza asko, eta aski modu arinean, aldatzen ari dira. Eskuineko taldeak indar handia hartzen ari dira eta egungo sistema desegin nahi dute. Beldurrik gabe diktaduren aldeko iritzia ematen dituzte, zuzenean edo zeharka. Ezkerreko indar batzuek ere berdintsu ikusten dituzte gauzak, aski antidemokratikoak diren erregimenak eredu gisa onartzen baitituzte. Batzuek eta besteek marra gorriak gurutzatu dituzte, eta ez dakit noraino joan daitezkeen. Zweig datorkit gogora.

Historiak erakutsi diguna kendu dute haien gogotik. Historia ez da existitzen, ez da haren beharrik. Bestelako eredu bat dut nik buruan: demokrazia liberala, zuzenbide estatua eta gizartearen ongizatea. Hirukote horrek eman ditu, gizakiaren historian, emaitza hoberenak. Zuloekin, ez dut ukatuko. Zulo handiekin. Baina ezagutu ditugun gainerako guztiak askoz ere txarragoak dira. Historiari behatzea baizik ez da. Hori apurtzen bada, eta bidean gaudeke, hurrengo belaunaldiak sufrituko dute. Gazteek sufrituko dute, haiena baita etorkizuna. Hori ikusi behar lukete, eta ondorioak atera.

“Baina arrisku handiena hiper-ideologizazioan dago, nik uste. Eta horrek indar handia du gure artean. Oso kaltegarria da, ez baitu uzten errealitatea ezinbestekoa den gutxieneko malgutasun batekin ikusten.”

Leninek bortizkeria justifikatu zuen iraultza garaile atera zedin ordaindu beharreko odol-prezioan. "Nire borroka" liburuan Hitlerrek juduen bortizkeria eta ondorengo sarraskia justifikatzen ditu. Eta horrela, zerrenda luzea egin genezake. Oroimenaz eta ahanzturaz ari garenean, ez al genituzke gogoratu eta ez ahaztu behar indarkeria eragin eta justifikatu zuten ideologiak ere, benetan historian gertatu denaren neurri berean?

Lenin aspaldi irakurri nuen, orain dela 50 urte. Arrunta zen gure garaian haren lanak besapean eramatea. Liburu hau idazteko Hitlerrena irakurri dut orain, lehenbiziko aldiz, haren buruan zer ote zegoen jakin nahian. Ideologia guztiek egin dituzte sekulako sarraskiak munduko toki guztietan. Ez dakit baden salbuespenik. Budismoa aipatu izan da, baina Myanmarrekoa gertaturik, hori ere ez dut hain argi. Bestetik ideologiak ezinbestekoak dira bizikidetzaren proiektuak aurrera ateratzeko. Baina arrisku handiena hiper-ideologizazioan dago, nik uste. Eta horrek indar handia du gure artean. Oso kaltegarria da, ez baitu uzten errealtatea ezinbestekoa den gutxieneko malgutasun batekin ikusten. Anitz adibide ditugu. Azkeneraino eramanez, topiko arriskugarrietan erortzen gara: kontserbadorea, edo nik bezala pentsatzen ez badu, faxista da, bistan da; dena ETA da; segurtasun indar guztiak gaiztoak dira; hori nire taldekoa da, beraz ona da. Ideologiak akritiko bihurtzen gaitu, eta errealtatea tolestean du modu bakar batean ikus dezagun. Malgutasuna beharrezkoa da, gizakiak gara.

Liburuaren mezu nagusia esaldi bakarrean laburtu beharko bazenu, zein izango litzateke?

Bizikidetzak aurrera begiratzea eskatzen du, baina ezin dugu aurrera egin biktimak kontuan izan gabe: gertatua ezin da ahaztu eta argitu behar da.




Pello, zu euskal hizkuntzalaria zara. Euskal Herriko hiri batzuetan badirudi euskara eta gaztelania bi gizarte-eredu eta bi bizimodu bereizten dituen muga direla, batez ere gazteen artean. Nola ikusten duzu zuk arazo hau?

Esango nuke hori beti hola izan dela, oro har eta salbuespenak kendurik. Hola segitzea gaur egun ez da ona. Euskararen egoera inoiz baino hobea da, baina ez da ona, eta arrisku handiak ditu gainean. Hori konpontzeko ikusmolde desberdinak daude, eta hemen ere hiper-ideologizazioak badu zerikusia. Ditugun erronkek hausnarketa berezia eskatzen dute, patxadazkoa, topikoetatik urruna. Gainera, gizartearen ezaugarriak egun batetik bestera aldatzen ari dira. Baina horrek hemen garatu ezin duen beste hausnarketa sakonago batera eramango ninduke.

Liburuaz zerbait gehiago gaineratu nahi zenuke?

Pare bat gauza. Liburuaren prosa arina da, ez da lan akademiko batena. Barneko egitura ere ez da ohikoa. Batuan dago, jakina, baina estiloari dagokionez badira hitzak, esamoldeak, sintaxi ereduak... arruntak ez direnak. Liburuei kolore pixka bat ematea gustatzen zait, eta honen kolorea Baztan-Iparraldekoa da. Hala ere, saiatu naiz hitz guztiak testuinguruan ulertzeko moduan paratzen. Irakurleak ez du zailtasun berezirik izango, pentsatzen dut.

“Bizikidetzak aurrera begiratzea eskatzen du, baina ezin dugu aurrera egin biktimak kontuan izan gabe: gertatua ezin da ahaztu eta argitu behar da.”



HAIZEAREN AHOTSETAN

ETORKIZUNAK EKARRIKO DIGUNA

Iñaki Madison

Bizitzan ezer ezin da gertatu gizakiaren esku-hartzerik gabe; izan ere, gure ekintzek, talde gisa zein banaka, beti utzi izan dute beren arrastoa gizartean, eta arrasto horiek eraman gaituzte gaur garen izatera: gero eta bakartiagoak, gero eta gehiago errealitatetik gero eta aldenduagoak bizi diren izakiak, mundu gero eta korapilatsuago batek inguratuta. Hala ere, gure egitekoa da, eta gure ardura ere bai, gerta dakigun oro aukera bihurtzea: hazteko, hobetzeko eta eboluzionatzeko aukera.

Gure sena zaharrenak batzuetan modu ulertezinean erreakzionatzera bultzatzen gaituen arren (immigrazioaren erronkaren aurrean, lanaren etorkizun aldakorren aurrean, edo gure inguruan IAre beti deserosoa den presentziaren aurrean), gizadi gisa kontakizun partekatu eta zabal bat ehuntzeko gai izan beharko dugu. Kontakizun horrek erakutsi behar digu aurkako ditugun erronkak unibertsalak direla, eta gu geu garela soluzioaren parte eta ez arazoaren itzalak, azken batean, ezinbestean elkar behar dugula.

Horrenbestez, eginkizun handienetakoa izango da etengabeko ikaskuntzaren premiaz jabetzea: bizitza osoan zehar geure burua berrasmatzen jakitea, eta aldaketa jarraitua bideratuko duten malgutasun mentala eta adimen emozionala lantzea. Garbi dago lan-mundua gero eta aldakorragoa dela, eta bizitza osoan lan bakar bat eta ibilbide profesional zuzen bat izatearen ideia iraganeko kontzeptu bihurtu dela. Horregatik, geure bertsiorik onena aurkitu beharko dugu behin eta berriz, gizartearen barnean lekua eta zentzua izaten jarraitu nahi badugu. Horretarako, ezinbestekoak izango dira adimen emozional sendoa eta malgutasun mentala, eguneroko barreneko erabakietan gure lagun izango direnak.

Badakit, hezitzaile gisa, askoz ere zailagoa dela emozioak kudeatzen irakastea matematiketako formula bat edo fisikako lege bat azaltzea baino. Baina, aldi berean, ezin da ukatu pertsona askok atzean geldituko direla emozioen ulermen eta kudeaketa horretan; eta soilik gizaki emozionalki osasuntsuak hezteko gaitasuna —eta borondatea— duten gizarteek egingo dutela aurrera.

“Prest gaitezen, hortaz, geure onena emateko”

Nahi nuke orain arte lortu dugun guztia, ez dena gutxi, behar bezala baloratzea, eta lorpen horrek gure baitan piztea gure aurrekoek, gurasoek eta aitona-amonek, erakutsi ziguten kemena: egindakoa zaindu, eta bide berriak urratzeko indarra bildu, hobekuntza posible dela sinesten jarraitzeko.

Prest gaitezen, hortaz, geure onena emateko. Alde batera utz dezagun beti kexu, baina inoiz ezer eraikitzen ez duen zarata gogaikarria. Soilik horrela izango gara geure etorkizun pertsonalaz eta kolektiboaz kontziente. Azken batean, jokoan duguna izaten jarraitzea da: denboraren hari fin baina iraunkorrean gure aztarna utz diezaiogun.





EL EUSKERA EN LA RIOJA

Primeros testimonios



Eduardo Aznar Martínez

2ª edición revisada, corregida y aumentada



Zubixa Aldizkaria

Gure langileei buruz

Erredaktore-burua

Ricardo Guisado-Balanzategui

Zuzendaria

Ricardo Guisado-Balanzategui

Euskara

Mkel Zabala

Aldizkariaren edukiak

Beñat Gallastegui

Lankidetzak

Carlos Marmol

Oñati

www.zubixa.eus

zubixaaldizkaria@gmail.com

[@zubixaaldizkaria](https://www.instagram.com/zubixaaldizkaria)